



# HITZA ARGAZKI LEHIAKETA AZKEN TXANPAN

IX. HITZA Argazki Lehiaketako zortzi finalistak aukeratuta, irakurleen bozkek erabakiko dituzte hiru irabazleak >4-5

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Igandea  
2009-05-03

VIIURTEA 1.692.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Frantziako La Mouette banda Alde Zaharrean aritu zen kalejiran. R. CALVO

## LA MOUETTE BANDA ETA ISIDRO LARRAÑAGA ORKESTRA ELKARREKIN

**TOLOSA** Tolosako akordeoi orkestrak eta Frantziatik etorritako bandak kontzertua eskaini zuten atzo Plaza Berrian, kalejira egin ondoren 7

**Herrialde  
desberdinetako  
jokoetan ariko  
dira bihartik  
gaztetxoak**

**TOLOSALDEA** 'Munduari bira jolasean' ekimenean hartuko dute parte Tolosako eta Ibarako ikasleek 7

Ibarra · maiatzak 7, 8, 9 eta 10

18:00TATIK ZABALIK

IBARRA KANGI

VI. Garagarda Festa

Langela 3 karpemusikn jakitipikoak kulturekitaldiak  
20garagardomota 5kalimotxoaukeran kontzertuak

LAGUNTZALE hitza



Goian, Asteasuko duatloia. Behean Orexan, goitibehera txapelketa. R. CALVO

## Asteasu eta Orexan gaur amaituko dira herriko jaiak .



TOLOSALDEA,  
LASKORAIN IKASTOLA,  
ZEURE AUKERA



• Kalitatezko heziketa euskalduna.

• Tolosaldeko gazteen Bigarren Hezikuntzarako ikastola.

• Unibertsitateko zein Lanbide Heziketarako bide guztiak irekiko dizkigun ikastola.

Batxilergoko eskaintza zabala duelako:

✓ Giza eta Gizarte Zientziak

✓ Zientziak eta teknologia



**Izena emateko epea:** Maiatzaren 4tik 8ra bitartean  
Ikastetxeko idazkaritzan, Usabal Auzoa 26

**Ordutegia:** 9:00 - 13:00 eta 15:00 - 18:00

**Ate irekiak:** maiatzak 4, 18:00etan Usabalen

Argibide gehiago: Tel.: 943 67 44 28 edo [www.laskorainikastola.net](http://www.laskorainikastola.net)

## L Lehen eta orain



## B Blogteka info

### Bidaia ahaztezina

Laster 480 bidaiari iritsiko dira gura. Gure bidaiari gazteak saharar errefuxiatu kanpalekueetatik eratorriak dira.

Sahararrak 34 urte daramatzate *hamada* izeneko tokian, kanpo laguntzaren bidez bizitzen. Hauek ez dute sekula bere benetako etxea ezagutu, askok ez dituzte sekulan ibaiak, itsasoa, hondartzak, mendiak... ikusi, guztientzat sari berezia izango da bidaia hau.

Guztiek behar eta nahi dute bidaia honetan parte hartu, baina hemen dauden bitartean bere gurasoak eta anai-arrebak egunero botako dituzte faltan.

Agida-k, Mohamed Moulud-ek, Fatimetou, Saleh, Alli, Maaluma, Abdalah-ek... iaz egin zuten beraien azken bidaia, haur bakoitzak 5 aldiz bidaiatzeko aukera baitu.

Hala ere, beraien harrera familien berri jasoko dute errefuxiatu kanpalekuetan.

Sidahmed, Mueilamenin, Hedja, Binaja eta Hussein berriro itzuliko dira Tolosaldera, beraien etxera, jada itxaroten dauden familietara.

Jlifa ere itzuliko da baina familia bila dabil baita Hamdi eta bera bezala lehen aldiz bidaiatuko duten beste hainbeste haur.

Agian zu izan zaitezke haur hauen harrera familia, agian zuk ere bidaia honetan parte hartuko duzu, solidaritate bidaia honetan.

Informazio gehiagorako Tolosaldea Sahararekin elkartera jo dezakezu, [tolosaldeasahararekin@gmail.com](mailto:tolosaldeasahararekin@gmail.com), edota 654 40 72 00 telefono zenbakiaren bidez.

### Harea eskuetan

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/sahararekin/>



### Sentimenduetatik hizkuntzaren erabilerara

Irakaskuntzan, era batera edo bestera, beti ibili izan gara Hirukiden pertsonak berez dakarren hori osatu nahian. Garrantzia eman diegu pertsonak bere osotasunean hezteari, ondoren, bizi garen mundu honetako gorabeherei hobeto erantzun eta, ahal dugun neurrian, onerako aldaketak egin ahal izateko.

Gainera horretarako ez dugu

ahaztu gure nortasunetik abiatzeko ematen dizkigun oinarri sendoak eta hor hizkuntzak/ek duten garrantzia.

Proiektu eta Plan asko egin ditugu, eta egingo ditugu, baina guztietan pertsonaren barrualdetik hasien ez bagara, ia, jai dugu!

Norberaren barrutik hasita guretzako eta besteentzako hobekuntza tresnak aurkituko ditugu...

### Hirukide ikastetxearen bloga

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/hirukide/>

## H Hilberriak eta urteurrenak

### JUAN ARBELEGI ASEGINOLAZA

(Edurne Arbelegi Goenaga zinegotziaren aita)



**Dolominik bizienak**  
Belauntzako udaleko alkate,  
zinegotzi eta langileen  
aldetik.



Hileta elizkizuna: BIHAR, astelehena, maiatzaren 4a, arratsaldeko 18:00etan Tolosako Sakramentinoetan.  
Oharra: Tolosako Funeraria Vascongadaren beltzean egongo da astelaren goizeko

**BELAUNTZAN**  
2009ko  
maiatzaren 3an

### I. Urteurrena IGORETXABE ELORZA

Urtebete pasaekien arren,  
gure arten haola sentitzei.  
Adiorik ez



**ZARAUTZ**  
2009ko  
maiatzaren 3a

**Hire koadrila**

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
[tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

## Azken asteetan bezala atzokoa ere euria nagusitu zen azokan

PABLO ALBERDI

Euria izan zen atzo nagusi Tolosa-ko azokan. Badira hiru edo lau bat aste eguzkia ikusi gabe, eta dagoneko baratzetan nabaritzen hasi da eguzkiaren gabezia.

Barazkiak oraindik ez daude kalteturik, baina lurreko lanak eta prestakuntzak atzeratu egin behar izan dituzte. Hilabete honetan egin behar dira udarari begira dauden landaketak, baina lehortasun piskabat iritsi arte itxaron beharko dugu.

Hala ere, eskaintza oraindik ez dugu kalteturik ikusi, eta oso aukera oparoa dago mahaietan. Okasioa paregabea suertatzen ari da datorren astean David de Jorge sukaldariaren lana ikusi ahal izateko asteroko azokan.

Slow Food mugimenduaren gainean hitz egingo digu sukaldariak, eta ziur sorpresaren bat edo beste ere eskainiko digula.

Zerrenda, baba eta ilarra nagusi zirela, oso bete aizan zen, eta hauez gain, porruak, azenarioak, azak, azaloreak, zainzuriak, tipulak edo eta baratxuri freskoak ere izan ziren. Onddoak, zizak eta senderelak ere ugari izan ziren mahaietan.

### » ATZOKO AZOKA

**BERDURA PLAZA** Merk. Gares.

Landareak		
Alegria	1,20	-
Erromeroa	4,00	6,00
Klabela	6,00	-
Xarbota	4,00	6,00
Geranioa	1,00	1,20
Salbia	3,00	-

### BERTAKO PRODUKTUAK Perretxikoak

Ziza	20,00	52,00
Onddoa	15,00	30,00

### Barazkiak (kiloa)

Tolosako babarruna	10,00	12,00
Tomatea	3,00	-
Porrua	1,00	3,00
Babarrun zuria	8,00	-
Kalabaza	1,50	3,00
Patata	1,00	1,50

### Besteak

Ogi biologikoa (900gr) 3,20	-
Arraultzak	2,50 2,40
Artisau ogia	2,80 3,70
Madalenak (500gr)	3,60 -
Irasagarra	3,00 6,00

### Gaztak

Gazta berria	17,00	-
Ardi-gazta	14,00	24,00
Behigazta	8,00	9,00

### PRODUKTUEKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Azenarioa	2,00	2,50
Baratxuria	1,60	6,00
Arroza	1,90	2,00

## Ordenagailuak apainduz

**Tolosa** » Future Modding Tournamenta iritsi da Gipuzkoa Encountererara; ordenagailuaren itxura aldatzea da gakoa.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoa Encounter gaur 18:00etan bukatuko da, egun hauetan zehar tailer eta ekitaldi ezberdinak egin dira bertan, tartean Future Modding Tournamenta, hau da, Europar Batasuneko modding txapelketarik handiena.

Modding-aren oinarria ordenagailuaren aldaketa estetiko da. Erabiltzaileak sistema desberdin eta original baten bila dihardute, horretarako ordenagailuaren



Modding-a ordenagailuaren itxura aldatzean datza. R. CALVO

itxura moldatuz edota ezerezetik ordenagailu sortuz.

Aurtengoan gainera, txapelketako Tacens babesleak tailerrek

eskaini ditu eta ordenagailu eramangarrietan moldaketak egiteko aukera ere eman dute. Sari desberdinak ere banatuko dituzte.

## Erraz irabazi dio Bengoetxeak Patxi Ruizi, Buruz Buruko Txapelketan

ERREDAKZIOA

Oinatz Bengoetxea eta Patxi Ruizen arteko Buruz Buruko Pilota Txapelketako partida izan zen atzo Iruñeko Labrit pilotalekuan, eta leitzarra erraz gailendu zitzaion Lizarrakoari, 22-4 amaitu baitzen norgehiagoka. Bengoetxea VI. oso eroso aritu zen, eta sakez 6 tanto egin zituen.

Iazko irabazlea, hau da, Bengoetxea izan zen atzokoan favorito argia, eta garaipenaren ostean, finalerdietan da jada. Gaurko partidaren jakingo da Irujo edota Gonzalez izango duen aurkari.



## Gazteek ekin diote Kultur Asteari

**IRURA** » Atzo hasi zituzten Irurako Kultur Astearen ekitaldiak. Herriko Gazte Asanbladako kideak izan ziren atzokoan protagonista, izan ere, eguerdian, gazteen olimpiadetakoko finalak jokatu zituzten, eta ondoren, guztiak herriko plazan bildu ziren bazkari lezea egiteko. Festak arratsaldean jarraitu zuen, triki po-teoarekin. Hala, Kultur Astea atzo hasi zen arren, datorren ostiraletik, hilaren 8tik, aurrera izango dira ekitaldi gehienak. Hilaren 17ra arte luzatuko da aurtengorako antolatutako egitaraua. IT.

**BERRI ON BAT DUGU**  
ZURE ETXETRESNA ELEKTRIKOENTZAT

TOLOSALDEAN  
Zerbitzu  
Ofizial Berria  
BSH Taldeko  
Markentzat

Interservice  
Ubarburu pasealekua, 81-  
Pol. Ind. 27 • 20014 Martutene

902 351 352

BOSCH  
SIEMENS  
Baby  
LYNXC  
ufesa

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## berria

**Kazetaritza praktikak egiteko bekadunak**  
hautatzeko probarako deialdia

PROBAKO EGUNAK ETA TOKIAK

### GIPUZKOAN

**Eguna:** maiatzaren 5a.  
**Tokia:** Andoingo Martin Ugalde Kultur Parkea.  
**Ordua:** arratsaldeko lauretan.

### BIZKAIAN

**Eguna:** maiatzaren 5a.  
**Tokia:** Leioako campuseko eraikin nagusian, 1. gelan.  
**Ordua:** eguerdiko ordu batean.

### ARABAN

**Eguna:** maiatzaren 6a.  
**Tokia:** BERRIaren Gasteizko egoitzan, Bizenta Mogel 6, behea.  
**Ordua:** goizeko bederatzita eta erdietan.

### NAFARROAN

**Eguna:** maiatzaren 5a.  
**Tokia:** BERRIaren Iruñeko egoitzan, Iratxeko monasterioa 45, eskuineko eskailera, 13. ezkerre.  
**Ordua:** goizeko hamarretan.

Probara curriculuma eraman behar da

# ZORTZI EDERRENAK

**HITZA Argazki Lehiaketa** » Zortzi finalistak aukeraturata, orain irakurleen bozkek erabakiko dute nor den aurtengo irabazlea; maiatzaren 8ra arte izango da bozka emateko aukera.

**IRAGAZIAZ**

IX. HITZA Argazki Lehiaketa ari da amaitzera iristen pitxkanaka. Apirilaren 30a izan zen parte hartzeko azken eguna, eta ondura arte, 68 argazki (guztiak ikusgai [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info) webgunean) jaso genituen. Argazki horietatik guztietatik Hirzuren epaileak «zortzi onenak» aukeratu ditu, eta horien artean egongo dira aurtengo irabazleak.

Lan hori, ordea, ohiko den moduan, Hirzuren harpidedunen esku utziko dugu, beraz, euren bozkek erabakiko dute zortzi finalistatik zortzi irabazle diren leherengo hiru postuetan. Maiatzaren 8ra arte izango dute bozkatze-lan aukeragutia (943 655605) egin ahala da, edo mailer ([tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info)). Harpidedun bakoitzeko bozka bat onartuko da, eta harpidedun bakoitzek zehaztu beharko da, bestela, bozkek ez du baliorik izango. Maiatzaren 15ean argitaratuko da irabazleak aukeratuako argazki irabazlea.

**Sariak irabazleentzat eta parte-hartzaileentzat** Irabazleak asteburu bat Musika-ko Akademiaren (www.akademia-tolosako-larrea.net), bi pertsonentzako bazkari edo afaria, herriarekiko Guretxunguren saski berria, eta parte-hartzaile eta boto emaldeen artean HITZAko produktusak zozketatuko ditugu.



**PALESTINA** » «Argazkia Hebronren atarata dago, Palestinako herri santu eta borrokalarietako bat, eta gaur egun Israelgo kolono eta armadaren biolentzia gogorrenetakoa jatorri diona. Hala eta guztiz ere, jendeak umorea ez du galituen eta aso abegiokorrak dira. Beretan bixila bat merexi duen herria. [www.vee.com](http://www.vee.com) (17.05.20)

**KANTABIA** » «Aste Santu honetan Cantabriako Asón bailaran izan ginen. Eguraldiak asko lagundu ez zigun arren asko gozatu genuen paraje haiek. Argazkian eguneko momentu onena ageri da, euririk gabekoa, haizalek asko egin genuen bordarekin. [www.vee.com](http://www.vee.com) (14.05.20)

**DONOSTIA** » «Nahiko garbi geratzen da non aterata dagoen argazki hau (Hitzaren onazi, Donostia). Aste santu hauetan umutara joan gabe gertu geratu naitenez, kamararekin jokoan bilizeko aprobetxatu dut. Iluntzean tripodak jartzen, eta minutu berdieko argazkia bota. Kolore gorriak hiriko argien isla-dak sortzen ditu eta zenbait lanoen mugimenduen kolore urdineko pintzeladak dirudite. [www.vee.com](http://www.vee.com) (14.05.20)



**IBARATZA** » «Guere inguruan ibili gara. Igaratzara joan ginen eluraz gozatzera, aurtien makina bat izan dugu eta! Irudian, Igaratzatik paisai paregabeak. [www.vee.com](http://www.vee.com) (17.05.20)




**PORTUGAL** » «Portugal hegaldian dagoen Algarbe inguruetan atera nuen argazki hau, arrantzale herri bixi batean. Bertan leho antzeko batean ipintza zuzkatzen lanerako katuskak. [www.vee.com](http://www.vee.com) (17.05.20)



**ESKOZIA** » «St. Andrews-eko katedralaren arrastoak. Bertako katedrala XII. mendean hasi ziren eraikitzen eta garaik hartan, Eskoziako eraikuntza handiena zen. XVI. mendeko erreforma erlijiosaren ondorioz eraso jasati eta erabat sunbiturik geratu zen. [www.vee.com](http://www.vee.com) (17.05.20)



**PORTUGAL** » «Goizean goiz ibal baten inguruan atera genuen argazki hau, kamaran filtroa jarri eta kolore oso bereziak atera nituen. Argazkia Algarben atera dago. [www.vee.com](http://www.vee.com)



**PORTUGAL** » «Argazkia Segoviako kaleetan ateratakoa da. Aste Santuko prozesio batean ume honien begirada ekin togo egin nuen. Apirilaren 9an, Otegeun Santuan atera nuen, hain zuzen ere. [www.vee.com](http://www.vee.com)

**HITZA Argazki Lehiaketa.** IX. HITZA Argazki Lehiaketa-  
ra aurkeztutako argazki guztiak daude ikusgai gure webgunean, irudietan atarian. Guztira, 68 parte-hartzaile izan dira aurtengoa, eta munduko harbat tokitako irudak bidali dituzte, eskualdetik bertakotik, nahiz atzerrikoak. Bertan ikus ditzakezu, baina ere, zeintzuk diren finalera iritsi diren zortzi argazkiak, eta ondoren, bozka eman dezakezu (harpidedun bakoitzeko bozka bat), mailer, edota telefonoz (943 655605). [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)



# Gaur bukatuko dira Orexa eta Asteasuko Santa Kruzak

**Jaiak** » Oilarraren eta Simonen igoerekin agurtuko dituzte herritarrak Orexa eta Asteasuko aurtengo jaiak.

## ERREDAKZIOA

Santa Kruz jaietako egun nagusia izan zen atzokoa Orexa eta Asteasun. Lehenengo herrian jaiak ostegunean hasi zituzten eta Asteasun, berriz, atzo hasi eta gaur bukatuko dira jaiak.

Orexako Santa Kruzetan goitiberak ikusi ahal izan ziren atzo. Arratsaldean ospatu zuen bigarrenegoz txapelketa eta aurtengoan gainera, bi neskek ere hartu zuten parte. Guztira 17 izan ziren parte hartu zuten goitiberak eta Euskal Herri guztiak gerturatu ziren: Zumarraga, Lasarte, Riezu (Nafarroa), Asteasu, Sestao (Bizkaia), Altsasu (Nafarroa), Erandio (Bizkaia)...

## Hiru sari

Hiru sari banatu zituzten; azkarrenari, gazte azkarrenari eta baita goitibera xelebreenari ere. Jende asko gerturatu zen txapelketa ikustera eta guztiak bide bazterretan jarri ziren istripuak ekiditeko. Ibilbidea iazko bera izan zen, hau da, Etxaburutik plazaraino, eta lau mailatan aritu ziren; Golfo izeneko, non lau goitiberak hartu zuten parte, goitibera bakarra izan zuen rodamentuzko maila, neumatikokoak izeneko, bost parte hartzaileekin eta Orexa bertako parte hartzaileen maila. Hiru txanda egin zituzten, lehena probazkoa izan zen eta beste bietan hartu zituzten markak.

Behin txapelketa bukatuta herri afaria izan zuten eta ondoren dan-

tzaldia ere egonzen Gabezin taldearen eskutik.

Jai eguna DJ Bullen musikarekin amaitu zuten orexatarrek. Festak esan bezala, gaur bukatuko dituzte urteroko oilarraren igoerarekin.

## Duatloia, jaiak hasteko

Asteasun ere egitarau erakargarria izan zuten atzokoan Udaleko Festa Batzordearen eta Elizmendi auzokideen lanari esker. Eguna txikienekin hasi zuten duatloi probarekin.

Bazkaldu eta gero Mus Txapelketa herrikoia egin zuten eta txupinazioa 16:30ean izan zen Simonen jaitserarekin. Haurrentzako jolasak izan zituzten ondoren eta baita Txan Magoaren emanaldia eta buruhandiak ere.

Herri afaria eta gero musikarekin amaitu zuten asteasuarrek ere euren jai eguna. Honakoan erromeria Kupela taldearekin egin zuten eta goizaldean indarberritzeko txokolatada ere izan zuten.

Simonen igoerarekin amaituko dituzte jaiak gaur, 21:00etan.



Guztira 17 goitiberak hartu zuten parte Orexa txapelketan. R. CALVO

## » GAURKO EGITARAUAK

### Asteasu

■ **11:30.** Meza Santa Kruz ermitan.

Ondoren hamaiketako eta toka txapelketa egingo dute Laja eta Landakanda trikitalariekin.

■ **17:30.** Herri kirolak. Iparraldeko jokoak Lapazaran eta Tubirekin eta Ostolatza harrijasotzailearekin. Ondoren, sokamuturra zezen txiki eta poneyekin. Gero buruhandiak izango dira.

■ **21:00.** Simonen igoera. Ondo-

ren, Laja eta Landakanda trikitalariek ariko dira.

### Orexa

■ **12:00.** Diana herriko txistulariekin. Ondoren hamaiketako.

■ **17:00.** Lizartza eta Orexaoko haurren pilota partidak.

■ **19:00.** Sagardo probaketa.

■ **21:00.** A. M. Peñagarikano eta Iker Zubeldia bertolariak, ondoren oilarraren igoera.



Txikienean duatloiarekin hasi zituzten atzo Santa Kruz jaiak Asteasun. R. CALVO

## Laburrak

### Bakarrik dauden adin txikiko atzeritarrak

**IBARRA** » Ibarra Uzturpe Ikastolak bakarrik dauden adin txikiko atzeritarraren egoerari buruzko hitzaldia antolatu du Tolosako Udaleko Immigrazio sailak lagunduta. Hitzaldia asteartean izango da, hilak 5, 17:00etan ikastolako Areto Nagusian eta SOS Arrazakeriako Anna Sternek eskainiko du. Ikastolak esan duenez, ekitaldiarekin «gurasoek adierazitako kezka eta galderei erantzuna» ematen saiatuko dira, izan ere «gurasoen irizki oso garrantzitsuak dira gure seme-alabentzat».

### Laskorainen matrikulatu nahi dutenentzat hitzordua

**TOLOSA** » Tolosako Laskorain Ikastolako zuzendariak, Jone Urteagak, argitu duenez, datorren ikasturteari begira batxilergoan matrikulatu eta informazioa jaso nahi duten ikasle berriek bihar astelehena izango dute horretarako aukera 18:00etan Usabalen. Horiek horrela, bertaratzen diren ikasle zein guraso guztiek Laskorain Ikastolaren aurkezpen saioa eta bisita izango dituzte.

## T Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbolak:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Intzako herrian (Nafarroa) herriko plazan 300 urteko etxea garajearekin modu onean saltzen da. Bertako eran sendotuz eraberritutakoa da eta estreinatzeko dago. Ezinduentzako egokituta dago. Aralarko magalean landetxea jartzeko aukera ere ematen du. Harremanetarako deitu 628 030 727, 609 218 341 edo 646 111 485 telefonoetara. Edota idatzi honako posta elektronikora: [estanga\\_intz@hotmail.com](mailto:estanga_intz@hotmail.com).

# Isidro Larrañaga akordeoi orkestra eta La Mouette banda, eskutik

**Tolosa** » Isidro Larrañagako akordeoien eta Landetako bandaren arteko elkartrukea izan zen atzokoan Alde Zaharrean.

## ERREDAKZIOA

Entsegu lokaletatik kalera salto egiteko aukera izan zuten atzokoan Tolosako Isidro Larrañaga akordeoi orkestrako eta Landetako (Frantzia) La Mouette bandako musikari gazteek.

Izan ere, krisiaren eraginez, edo ez, geroz eta gutxiago dira udalteeetatik bultzatzen diren elkartrukeak, baina honi aurre egiteko bidea ere aurkitu dute aipatu taldeetako kideek. Oraingoan hortaz, Landetako bandaren txanda izan da eta Tolosan izan ziren atzokoan kaleak alaitzeko. Ondoren, tolosarrak izango dira Landa aldera joango direnak. Frantziarrak Larraulen eman dute asteburua eta turismoa egiteko modua ere izan dute, gainera.

Atzoko emanaldia 11:30ak aldera hasi zen. Lehenik eta behin La Mouette banda Plaza Berritik ir-

ten zen kalejiran Alde Zaharrean ibiltzeko. Kaleak alaitu eta gero Plaza Berrira itzuli ziren eta bertan, pieza ugari ere jo zituzten.

Kontzertuaren txanda izan zen ondoren. Plazako kioskoan jarri ziren Isidro Larrañaga akordeoi orkestra eta hiru obra eskaini zituzten bertan. Hauek eta gero frantziarren txanda izan zen.

## 25 gazte gogotsu

Aipatu behar da, era berean, Isidro Larrañaga akordeoi orkestrako kide gazteek astean behin entsegatzen dutela.

Une honetan 25 lagunek osatzen dute taldea eta atzokoan oso pozik ageri ziren euren lana jendartean erakusteko aukera izan zutelako.

Elkartrukeari jarraiki, gainera, eurek ere izango dute Landak hobeto ezagutzeko eta bertan jotzeko aukera.

Akordei orkestrako gazteak 2007an Pragako lehiaketan sari-tuak izan ziren eta orain buru belarri ari dira lanean datorren urteko edizioan ere lan txukuna egin ahal izateko. Datorren emanaldia Tolosako sanjoanetan izango dute.



Kalejiran ibili ziren lehenengo La Mouetteko kideak, ondoren Isidro Larrañaga orkestrako txanda izan zen. R. CALVO



## 10. urteurreneko jaiari hasiera

**ANOETA** » Atzo hasi ziren Gaztetxean 10. urteurrenaren harira antolatutako ekitaldiekin. Hala, eguerdiko txupinazoaren ostean, presoan argazkiak jarri zituzten, eta ondoren, pintxo eta tortila lehiaketa egin zuten. Ederki moldatu ziren gazteak sukdalean. Ondo-

ren, noski, prestaturikoa jateko unea iritsi zen. Mus txapelketa izan zuten bazkalostean, eta iluntzean potoa txarangaren doinuek lagundurik. Afariaren ostean, festak jarraitu zuten Gaztetxean, Hesian eta Suataldeak aritu baitziren kontzertuan. 1.

## Munduko herrialde desberdinetan jolasteko aukera

**Inmigrazioa** » 'Munduari bira jolasean'-i esker bost kontinenteetako jolasetan ariko dira Tolosako eta Ibarako haurrak.

## ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Garatzen Agentziak Tolosaldeko Elkar Ezagutzen izeneko Immigrazio Plana bultzatzeko hainbat ekimen egiten ari da eta hori dela eta, aurten kulturartekotasuna lantzeko, *Munduari bira jolasean* jolas-gunea eskainiko diete Ibarra eta Tolosako ikasleei.

Guztira 3 orduko hiru saio izango dira bihar, etzi eta asteazkenean, hau da, hilaren 4an, 5ean eta 6ean, 09:30etik 12:30era.

Saio guztiak Tolosako Kultur Etxeko areto nagusian izango dira eta, eguraldi ona eginez gero, jolas gune guztiak edota soilik leku zabalago bat eskatzen dituzten jola-

sak, Triangulo plazan egingo dituzte.

*Munduari bira jolasean* bezala batailatutako jolas-gunearen birtartez Tolosako eta Ibarako Lehen Hezkuntzako bigarren mailako neska-mutil guztiei munduko bost kontinenteetan zehar jolasteara gonbidatuko dituzte.

## Jolas librea, antolatua eta tailerrak

Kontinente bakoitzaren ariko den begiraleak, lurralde horri dagozkion jolas librea, jolas antolatua eta tailerrak dinamizatuko ditu eta umee ordu eta erdian kultura desberdinetako 10 jolas eta 5 tailer egiteko aukera izango dute.

Tolosaldeko lau ikastetxeetako 247 ikaslek hartuko dute parte guztira: Samaniego Herri Ikastetxe 70ume, Hirukide Jesuitinao 65 ume, Laskorain Ikastolako 82 eta Ibarako Uzturpe Ikastolako 30 ume.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Teléfonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetaldia:** 687 410 022. anoetaldia@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraldia:** 687 410 032. ibarraldia@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalalc:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Baliarain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Berastegi.** Basurde Kiroi Elkarteak antolatuta, XVII. ibilaldi neurtua. Urepel, Mandoegi, Abadegurutze, Ipluño, San Lorentzo igoz, plazatik 07:00etan abiatuz, 6,5-8 ordu.
- **Tolosa.** Gipuzkoa Encounter III informatika zaleen bilkura Usabal kiroldegian. Gaur izango da azken eguna.
- **Zizurkil.** Andatza Eguna: 11:00etan hamaiketako, 12:00etan herri kirolak eta jokoak haurrentzat eta helduentzat, 14:00etan bazkaria (norberak berea eramanda). Goizean zehar erromeria egongo da trikitilari eta bertsolariekin.

### Zinema

- **Tolosa.** Leido aretoan, gaur: 17:00etan, gaztetxoei zuzenduriko filma, *Monstruos contra alienigenas*. 19:30ean eta 22:00etan. *Duplicity*. Bihar (ikuslearen eguna): 20:30ean, *Duplicity*.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- Gaur**
- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
  - **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.
- Bihar**
- **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 48. 943 6732 74.
  - **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Juan Bautista eta Manuela (Lizartza)**  
Gaur aitona 90 urte eta amak bere eguna. Ondo ospatu famili guztiaren artean. Zorionak!



### Zo-ri-o-nakkk Gari!

Besarkada bero ta txoko-marrubizko muxutxo goxo pille Ekiñe, Haimar ta Olatzen partez! Eutsi gogor!

### Zorionak!

**Olatz.** Zorionak zure jatebtxeko lankideen partetik. Ea «la kubata» ateratzen dizugun.



### Zorionak Gari!

Eutsi goiar! Hemendik ilargiraino eta handik hona matte zaitugu!



### Zorionak!

**Urki Artola Amundarain (Tolosa).** Zorionak eta muxu handi bat denon partetik.



### Zorionak!

**Julen Garmendia (Abaltzisketa).** Bihar 2 urte. Muxu bat, ama, aita, Belen amona eta izeba-osaben partetik.

agurrak

urtebetetzak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAREN egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAREN egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak



### Zorionak Gari!

Lizartzako ezker abertzalearen eskutik!

## Loatzo Matrikulazioa

**09-10 IKASTURTEA**

*Gaur bihar eta atzo, musikaren bidean LOATZO*

**Epea: maiatzak 11tik 15era**

**Non matrikulatu:** (goizez, 10:00etatik-12:00etara)

<p><b>ADUNA:</b> Maiatzak 14-15 UDALETXEAN</p> <p><b>ALEGIA:</b> Maiatzak 11-12 KULTUR ETXEAN</p> <p><b>ALTZO:</b> Maiatzak 14-15 UDALETXEAN</p> <p><b>ANOETA:</b> Maiatzak 11-12-13 IKASTOLAN</p>	<p><b>IBARRA:</b> Maiatzak 11-12-13 MUSIKA ESKOLAN</p> <p><b>IRURA:</b> Maiatzak 13-14 KULTUR GUNEAN</p> <p><b>VILLABONA:</b> Maiatzak 11-15 MUSIKA ESKOLAN</p> <p><b>ZIZURKIL:</b> Maiatzak 11-12-13 ATXULONDON</p>
--	--

**ESKAINITZA ZABALA:**  
musika tailerra, tresnak, hizkuntza, tresnak, taldeak...

**Informazio gehiago: 943 692619**